



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

JESUSEN HERIOTZA

6. ERANSKINA

ERAGILE, KATEKISTA ETA GURASOENTZAT

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**

JESUSEN HERIOTZA¹

"Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia" (Lukas 23, 46)

I. Jesusen heriotza, gertaera historikoa

Gaur egun, ia inork ez du zalantzarik egiten Pontzio Pilato erromatar prefektuaren garaian gertatu zen Jesusen gurutzeko heriotzaz. Jesusen heriotza lehen mailako datu historikoa da. Lau ebanjelariak, Apostoluen Eginek haren exekuzioa eta gurutzeko heriotza aditzera ematen dute. Seguruenik, historialarien arabera, Jesusen gurutziltzaketa 30. urte inguruan gerta zitekeen.




Gurutzeko heriotza esklaboei, krimenak egitearen errudun jotakoei eta Erromaren aurka altxatzera ausartzen zirenei ezartzen zitzairen. Juduentzat, gurutzeko heriotza Jainkoaren madarikazioa da: "Jainkoaren madarikazioa erakartzen du zintzilikuak" (Dt 21, 23).

Jesus, beraz, arrakastarik ez duen pertsona bezala hil zen, bakarrik, bere egintzaren fruituez gozatu gabe, salduta eta bere ikasle eta jarraitzaileek bertan behera utzita, beretarren aurrean hilarazita, Jainkoaren madarikatu bezala.

II. ¿Zer dela-eta hiltzen da Jesus?

Bere bizitza eta mezuarekin eragindako liskarren ondorioz hil zuten Jesus. Prozesu historikoari jaramon eginez, hau da Ebanjelioetan jasotzen denari erreparaturaz, Jesus hiltzeko jatorrizko arrazoia, erlijiosoan izan zen: biraogiletzat hartuta hil zuten.



Alde batetik, Jesusek Moisesen Legearen inguruan zuen jarrerak krisian jartzen zuen Israeleko agintarien erlijio eta gizarte agintearen oinarri zen lege-egitura. Jainkoarengandik datorren gizonari dagokion berariazko askatasunarekin, Jesusek Legearen gaineratik kokatzen du bere burua eta, gainerako ohituren gaineratik, maitasunari ematen dio azken hitza.

Beste alde batetik, Jesusek Jainko irekia iragartzen du, pertsona guztiak, atzerritar eta bekatariak barne, kontuan hartzen dituen eta, ondorioz, herri judua eta Yahverekiko ituna pribilegiatzen ez duena. Jesusek, Jainkoaren Erreinua gertu dela eta barkamen eta graziazko Berri On dela hots egiten du. Baina bere heriotzaren arrazoia, soziopolitikoan ere bada, izan be, Jesus Erromak ezarritako gizarte-politika orekaren asaldatzailatzat jotzen zuten.

III. ¿Zein da Jesusentzat bere heriotzaren sena?

Jesusek badaki heriotzaren mehatxua ganean duena eta buru-argitasunez jokatzeko du, egoerari aurre egin eta saihestu gabe. Jesus beldur-ikaraz da exekuzioa dela-eta, baina Aitarekiko, bere buruarekiko eta bere misioarekiko leialtasunez iraun du azkeneraino. Hori dela-eta, Jesusen funtsezko hainbat ezaugarri antzeman dezakegu gurutzean.

Orain, hobeto ezagut dezakegu Jesusek Aitarengan duen konfiantzaren sakontasuna. Denak porrot egin eta Jainkoak berak ere bertan behera utzi duela dirudienean, Jesusek fedez oihukatzen du: "Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia" (Lk 23, 46).

Orain, hobeto antzeman dezakegu Jesusen erradikalitasuna eta bere erabateko askatasuna, bere burua Jainkoaren Erreinuaren alde emateko. Jesus aske da bai bere misioaren aurka daudenei aurka egiteko eta bai gizaki orok gehien maite duena, norbere bizia, egundoko eskuzabaltasunez emateko.

Orain, hobeto uler dezakegu Jesusen elkertasuna gizaki ororen alde eta bere zerbitzari-
sen eta jarrera. Jainkoaren auziaren eta gizadiaren salbazioaren alde Berak egin
zezakeen azken eta goreneko zerbitzu bezala ulertu du Jesusek bere heriotza.

Orain, hobeto uler dezakegu Jesusen indarra, gorrotoa, norberekoikeria, bidegabekeria
eta gezurra salatze eta bere erabateko fedea maitasunean, guztiok behin betiko
askapenera eramango gaituen bide bakar bezala.

IV. Zeina da guretzat Jesusen heriotzaren sena?

- Maitasuna, heriotza baino indartsuago delako, heriotza ez dela amaiera adierazten dute fededunentzat Jesusen sufrimendu eta heriotzak.
- Lurreko baztertu guztiek aliatua dutela, ez daudela bakarrik, adierazten digute Jesusen sufrimendu eta heriotzak.
- Jesusen heriotzan, heriotzak ez ezik biziak salbatzen gaituela sentitzen dugu. Bere bizitza osoa salbatzaile, sendatzaile, askatzaile, adiskidetzaila, bizi-emaile eta bakegile da.
- Gure munduan bizi ematen, ontasunez jokatzeko, beren burua behartsuenen alde eskuzabaltasunez eskaintzen duten pertsona guztiak Jainkoaren agerpen direla ere sentitzen dugu. Horiek dira Jainkoaren maitasun salbatzailearen bitarteko.

